

IRURAKO UDALA

Udal liburutegia erabiltzeko arauak

Irurako udal liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kidea da, eta ondorioz erabilgarria den oinarrizko araudia sareak ezarria duena da. Euskadiko Liburutegiei buruzko legeko IX. titulua aplikatuko da.

Hala ere, Irurako liburutegia, herritar guztiei eskaintzen zaien zerbitzu publiko eta doakoa da eta bertan dauden arauak betetzea guztion betebeharra denez, Araudi honen osaketa eta jarraipena Irurako Udaleko Kultura batzordearen eskumena da, eta liburuzainak du betearazteko ardura. Araudi hau lege honetan oinarrituz egin da: 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiari buruzkoa. Hortaz, liburutegia erabiltzeko araudi hau onartzea dakar.

1.- ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

2.- LIBURUTEGIKO BAZKIDE TXARTELA ESKATZEA

3.- ORDUTEGIA

4.- INFORMAZIO ZERBITZUA

5.- MAILEGU ZERBITZUA

6.- ORDENAGAILUEN ERABILERA

7.- WIFIA

8.- FOTOKOPIA ETA ESKANEO ZERBITZUA

9.- ZEHAPEN ARAUBIDEA. ARAUDIA HAUSTEAREN ONDORIOAK ETA PROZEDURA

1.-ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

- Erabiltzaileek errespetuzko jarrera izango dute liburuzainarekin eta gainontzeko erabiltzaileekin.
- Liburuzainaren esanak bete eta aintzat hartuko dira.
- Liburuzainak eskatuz gero, erabiltzailea identifikatuko da.
- Liburutegiko instalazioak, ekipoak, fondoak eta jabetzak kaltetu gabe eta behar bezala erabiliko dira.
- Bolumen baxuan hitz egingo da, eta bertan poliki eta patxadaz ibiliko da, zaratarik atera gabe.
- 6 urtetik beherako haurrak arduradun batekin sartuko dira eta liburutegiko haurren txokoan egon beharko dute.
- Gailu elektronikoak (tabletak, ordenagailuak, sakelako telefonoak etab.) bolumenik gabe erabiliko dira. Ezingo da, argazki edo bideorik egin, ez eta lekuz kanpo dauden edukietan nabigatu. Erabilera desegoki baten aurrean, liburuzainak, hauen erabilera debekatu ahal izango du.
- Animaliak ezinduei laguntzeko direnean soilik sartuko dira.
- Bizikletak eraikinetik kanpo utziko dira.
- Patineteak liburutegi kanpoko pasiluaren amaieran utzi ahal izango dira, ahalik eta traba gutxien eraginez eta beti ere jabearen ardurapean.
- Haur kotxeak pasilloan utziko dira (2 urte bitarteko haurren kotxeak onartuko dira soilik).
- Patinak, baloiak edo antzekoak liburutegiko sarreran utziko dira norberaren ardurapean.
- Liburutegian ezin da jan eta edan.
- Adin txikiko erabiltzaileen erantzuleak beren guraso edo tutoreak dira.

2.-LIBURUTEGIKO BAZKIDE TXARTELA ESKATZEA.

Liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko, beharrezkoa da bazkide txartela izatea. Txartelak aukera ematen du Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztietako zerbitzuak erabiltzeko. Txartela doakoa da.

Txartela eskuratzeko:

- 0-15 urte bitarteko pertsonak inprimaki bat bete beharko dute eta tutoreren baten baimena izan beharko dute.

- 16 urtetik gorakoek, inprimakia betetzeaz gain NAN, pasaportearen edo atzeritarraren nortasun txartela ipini beharko dute.
- Dokumentazioa aurkeztutakoan bazkide txartela egingo da, eta interesatuak berak jaso beharko du informazio mostradorean, eskabidea egin ondoren zazpi egun pasatzen direnean.

3.- ORDUTEGIA

- Liburutegia astelehenetik ostegunera 16:30etatik 19:00etara eta ostiraletan 11:00etatik 13:00era irekiko da.
- Udan zehar, ekainetik irailera, liburutegia goizez eta egun jakin batzuetan soilik irekiko da. Abuztuan itxita egongo da.
- Urte osoko egutegia Irurako udaleko web orrian dago.

4. INFORMAZIO ZERBITZUA

Liburutegiaren sarreran liburutegiko informazio mahaia dago; bertan liburuzaina egongo da funtsei eta haien kokapenari buruzko informazioa emango da; horrez gain erabilera arauak azalduko dira, txartelak izapidetuko dira, mailegua eta «liburutegien arteko mailegua» egingo da, eta liburutegiaren jardunarekin lotura duten kontsulta guztiak egingo dira.

5. MAILEGU ZERBITZUA

Udal liburutegiak mailegu zerbitzua eskaintzen du Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkideentzat. Zerbitzu hori erabili ahal izateko nahitaezkoa da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkidea dela egiaztatzea.

* Mailegatzeko baldintzak:

- Mailegurako eskubidea izateko Euskadiko irakurketa Publikoko Sareko txartela izan behar da.
- Mailegurako materiala:

<i>Materiala</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Epea</i>	<i>Berritzea</i>	<i>Erreserba</i>
Liburuak	3	21 egun	Bai*	Bai

* Erreserbatuta ez badago

- Bazkide bakoitzak gehienez hiru liburu izango ditu mailegatuak. Salbuespenak egon daitezke.

* Epeak:

- Liburuak hiru asteko epean mailegatuko dira.
- Liburuen kasuan mailegua bitan berritu ahal izango da, hiru asteko epean, betiere mailegu-epearen barruan egiten bada.

* Non hartu mailegua eta non itzuli:

- Liburutegi sarrerako mostradorean liburuzainari esanda.
- Itzulketa Pello Arresei-Igor kaleko 1 atean hartarako jarria den mailegu-itzulketarako postontzian ere egin daiteke.

* Non berritu eta erreserbatu:

- Sarrerako informazio mahaian.
- Internet bidez, EIPSk (Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko) webgunean, katalogoko «Nire liburutegia» atalean.
- Telefonoz (943692674).
- Posta elektronikoz liburutegia@irura.eus.

* Liburutegien arteko mailegua:

- Liburutegien arteko maileguan, Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko funtsak eskatu daitezke, baina gehienez ere hiru agiri batera. Eskabideak liburutegi sarrerako informazio mahaian, Internet bidez EIPSKo (Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko) webgunean, katalogoko «Nire liburutegia» atalean, telefonoz edo posta elektronikoaren bidez egin daitezke.

* Maileguak erakundeei:

- Ikastetxeek eta bestelako erakundeek baldintza bereziak dituzte kopuruari eta mailegurako epeei dagokienez.

Liburutegiko zenbait liburu ezin dira mailegatu, liburuan bertan zehazten da.

6. ORDENAGAILUEN ERABILERA

- Liburutegiak 2 ordenagailu ditu erabiltzaileen esku. Ordenagailua erabiltzeko baimena liburuzainari eskatu behar zaio.
- Ekipamendua informazioa kontsultatzeko edo erabilera akademikoa emateko erabiliko da: azterketa, ikerketa edo irakaskuntza jarduera edo lanak egiteko. Ez dira baimenduko legez kontrako softwarearen grabazioak, txat-aren erabilera, eduki pornografiko, bortitz edo xenofoboko informazioak eskuratzea Internet bidez, etab.
- Erabiltzeko denbora liburuzainak zehaztuko du eskatzaile kopuruaren arabera. Ordenagailuak okupatuta badaude, itxarote zerranda bat egingo da.
- Ordenagailuaren erabilerarekin amaitzean, erabiltzailea arduratuko da sartu dituen datu, korreo, etab. pertsonalak ezabatzeaz, liburutegia ez da horren erantzule.
- Liburutegiak ez du bere gain hartuko gerta litekeen edozein informazio galera. Erabiltzaileak informazioa USB gailu baten bidez gorde dezake, edo bestela sistemak hartarako eskaintzen dituen aukeren bidez (posta elektronikoa batera bidaltzea, etab.).
- Dohainekoa da, inprimatze lanak izan ezik.
- Zerbitzuaren erabilera desegokia eginez gero, ardura erabiltzailearena da eta uneko ondorioa liburuzainak ipiniko dio.

7. WIFIA

- Wifi zerbitzua librea eta dohainekoa da.
- Ordenagailuari legezko erabilera emango zaio, hau da, jabetza intelektualari, copyright-ari eta lizentzietan buruz indarrean dagoen araudia errespetatuko da.
- Ezingo da txatean aritu; ezingo da sartu eduki pornografiko, indarkeriazko edo xenofoboa duten orrialdeetan; ezingo da bidali giza-eskubideen, haurren aurkako edo hirugarrenen sentsibilitatearen aurkako informaziorik; ez zaio emango bidegabetzat edo penaltzat jo litekeen beste erabilerarik.
- Zerbitzuaren erabilera desegokia eginez gero, ardura erabiltzailearena da eta uneko ondorioa liburuzainak ipiniko dio.

8. FOTOKOPIA ETA ESKANEO ZERBITZUA

Liburutegiak fotokopiagailu zerbitzua du, agiriak erreproduzitu ahal izateko. Liburutegiko edozein agiri erreproduzitzeko une bakoitzean indarrean dauden legeak bete behar dira, beraz erabiltzailea bakarrik izango da zerbitzuaren gainean egiten diren erabilera ezegokien arduraduna.

- Fotokopia bakoitzagatik ordaindu beharreko tasa unean indarrean dagoen ordenantza fiskalak zehazten duena izango da. Eskaneo zerbitzua doakoa da.
- Inprimakiak publikoari harrera eskaintzen zaion erakusmahaitik jaso eta bertan ordainduko dira. Nahi gabeko inprimaketa egiten duen pertsona inprimaketa ordaintzeaz arduratuko da.

9. ZEHAPEN ARAUBIDEA. ARAUDIA HAUSTEAREN ONDORIOAK ETA PROZEDURA

*Jarrera eta jokabideari dagokienez:

- Arau-haustea lehen aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta egun horretan ezingo du berriro sartu.
- Bigarren aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta astebetez ezingo du berriro sartu.
- Hirugarren aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta 6 hilabetez ezingo du berriro sartu.
- Arau-haustea errepikatzen bada, edo arau-hauste larria gertatuz gero, Kultura batzordeak aztertu eta erabakiko ditu hartu beharreko neurriak.

*Ondasun higigarri eta higiezinei dagokienez:

- Erabiltzaileak altzariak, liburuak, ordenagailuak edota bestelako ondasun materialak kaltetuko balitu, kalte-ordainen kargu egin beharko du.